

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5410

AGINDUA, 2009ko irailaren 3koan, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko kuskubiko moluskuen ekoizpeneko aldeen sailkapena ezartzen duena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 854/2004 (EE) Erregelamenduan -animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzeko berariazko arauak ezartzekoan-xedatutakoarekin bat etorriz, agintaritza eskudunak bere aplikazio-eremuan sartutako espezien ekoizpeneko eta berrezarpeneko aldeak aitortu eta sailkatu beharko ditu, arau horretan aurreikusten diren hiru alde-kategorien arabera.

Agindu honek xedetzat du Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko moluskuen ekoizpeneko aldeen aitorpena eta sailkapena ezartzea. Horretarako, aintzat hartu dira kuskubikoen ekoizpeneko aldeetan aldian behin egiten diren azterketa eta laginketak.

C kategorian sailkatutako aldeei dagokienez, ohartarazi beharra dago, berrezarpeneko alderik ez dagoenez, debakatuta dagoela alde horietan moluskuak ateratzea.

Gainera, aipatutako azterketa horien ondorio gisa, agindu honek egoki irizten dio muskuilu espeziea (*Mytilus edulis* eta *Mytilus galloprovincialis*) ateratzearen inguruau dagoen debekua iraunazteari.

Hori dena kontuan izanik, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko itsas aldeen sailkapena ezartzea, uren kalitateari eta horrek akiukulturan eta itsaskien bilketan dituen ondorioei dagokienez, eta honako hauek Euskal Autonomia Erkidegoan moluskuak ekoizteko alde izendatzea:

Bigarrena.— Hondarribia (Bidasoako itsasadarra): ikus eranskina:

C aldeko sailkapena: bokaletik aireportuaren puntalerainoko alde guztia, eta moluskoak harrapatzea debakatuta geratzen da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

5410

ORDEN de 3 de septiembre de 2009, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se establece la clasificación de las zonas de producción de moluscos bivalvos del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con lo establecido en el Reglamento (CE) n.º 854/2004, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 29 de abril de 2004, por el que se establecen las normas específicas para la organización de los controles oficiales de los productos de origen animal, la autoridad competente deberá declarar y clasificar las zonas de producción y reinstalación de las especies incluidas en su ámbito de aplicación conforme a las tres categorías de zonas que se prevén en dicha normativa.

La presente Orden tiene por objeto establecer la declaración y clasificación de las zonas de producción de moluscos en el litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Para ello se han tenido en cuenta los análisis y muestreros realizados periódicamente en las zonas de producción de bivalvos.

En relación con las zonas clasificadas como C, es preciso advertir que, al no existir zonas de reinstalación, queda prohibida la extracción de moluscos en dichas zonas.

Además, como resultado de los citados análisis, la presente Orden estima conveniente mantener la prohibición en relación con la extracción de la especie mejillón (*Mytilus edulis* y *Mytilus galloprovincialis*).

En virtud de lo expuesto,

RESUELVO:

Primero.— Establecer la clasificación de las zonas marítimas del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con la calidad de las aguas y sus efectos sobre el ejercicio de la acuicultura y el marisqueo, declarando las zonas de producción de moluscos en el País Vasco.

Segundo.— Hondarribia (Estuario del Bidasoa). Ver anexo:

Clasificación zona C: toda la zona comprendida desde la desembocadura hasta el puntal del aeropuerto, quedando prohibida la captura de moluscos.

Alde itxiaren sailkapena: moluskuak ekoizteko alde itxitzat aitortzen dira, eta moluskuok ateratzea debekatzen da:

- Aireportuaren puntaleko aldean, barrualderantz.
- Hondarribiako arrantza-portuan.
- Hondarribiako kirol-portuan.
- Beteranoen Dartsenan.

Hirugarrena.— Mundaka (Okako itsasadarra). Ikus eranskina:

B aldeko sailkapena: Arketas aldea (bokaleko aldearen eskuineko ertza, Sandinderi uharteraino). Bertan lortutako moluskuek aratzeta-prozesu bat pasa beharko dute bizirik merkaturatu baino lehen.

C aldeko sailkapena: Bokaleko aldearen ezkerreko ertza (Portuondo), Sandinderi uharteraino, eta Kanala aldea (Sandinderi uharteko eremua, Muruetako ontziolaraino), eta debakatuta geratzen da moluskuak ateratzea.

Alde itxiaren sailkapena: moluskuak ekoizteko alde itxitzat aitortzen dira, eta moluskuok ateratzea debekatzen da.

- Murueta ontziolatik urari goiti, Gernikaraino.
- Txatxarramendi uharteko Zubipean.
- Mundakako portuan.

Laugarrena.— Plentzia (Butroeko itsasadarra). Ikus eranskina:

C aldeko sailkapena: bokalaren eta Arrainolaren arteko aldea, Plentziako portua izan ezik, eta debakatuta geratzen da moluskuak ateratzea.

Alde itxiaren sailkapena: moluskuak ekoizteko alde itxitzat aitortzen dira, eta moluskuok ateratzea debekatzen da:

- Plentziako portuan.
- Itsasadarreko barrualdean (Arrainolatik urari goiti hartzen da barrualdetzat).

Bosgarrena.— Agindu honetan ezartzen diren ekoizpeneko aldeen sailkapenak honako espezie hauek ateratzeari eragiten dio:

- Ostra (Ostrea edulis, Crassostrea angulata eta Crassostrea gigas).
- Datila (Pharus legumen, Solen marginatus, Ensis ensis eta Ensis siliqua).
- Berberetxo (Cerastoderma edile edo Cardium edulis).
- Txirla (Venerupis pollastra, Ruditapes edo Tapes pullastra, Venerupis decussata, Ruditapes edo Tapes decussata, Venerupis semidecussata, Tapes semidecussata)

Clasificación de zona cerrada: se declaran zonas cerradas para la producción de moluscos, quedando prohibida su extracción:

- La zona comprendida entre el puntal del aeropuerto hacia el interior.
- El puerto pesquero de Hondarribia.
- El puerto deportivo de Hondarribia.
- La Dársena de Veteranos.

Tercero.— Mundaka (Estuario de Oka). Ver anexo:

Clasificación zona B: la zona de Arketas (margen derecho de la zona comprendida entre la desembocadura hasta la isla de Sandinderi). Los moluscos extraídos serán sometidos a un proceso de depuración previo a su comercialización en vivo.

Clasificación zona C: la margen izquierda (Portuondo) de la zona comprendida entre la desembocadura hasta la Isla de Sandinderi y la zona de Kanala (área comprendida entre la isla de Sandinderi hasta Astilleros de Murueta), quedando prohibida la extracción de moluscos.

Clasificación de zona cerrada: se declaran zonas cerradas para la producción de moluscos, quedando prohibida su extracción.

- Aguas arriba de Astilleros Murueta hasta Gernika.
- Área bajo el puente de la Isla de Txatxarramendi.
- Puerto de Mundaka.

Cuarto.— Plentzia (Estuario del Butroe). Ver anexo:

Clasificación zona C: la zona comprendida entre la desembocadura y Arrainola, exceptuando el puerto de Plentzia, quedando prohibida la extracción de moluscos.

Clasificación de zona cerrada: se declaran zonas cerradas para la producción de moluscos, quedando prohibida su extracción:

- Puerto de Plentzia.
- Zona interior del estuario, considerando ésta como la de aguas arriba de Arrainola.

Quinto.— La clasificación de las zonas de producción establecidas en esta Orden afecta a la extracción de las siguientes especies:

- Ostra (Ostrea edulis, Crassostrea angulata y Crassostrea gigas).
- Navaja (Pharus legumen, Solen marginatus, Ensis ensis y Ensis siliqua).
- Berberecho (Cerastoderma edule o Cardium edulis).
- Almeja (Venerupis pollastra, Ruditapes o Tapes pullastra, Venerupis decussata, Ruditapes o Tapes decussata, Venerupis semidecussata, Tapes semidecussata)

edo *Ruditapes philippinarum*, *Venerupis aurea* eta *Venerupis rhombooides*).

– Txirla txikia (*Venus striatula* eta *Chamelea gallina*).

Seigarrena.— Muskuilu espeziea (*Mytilus edulis* eta *Mytilus galloprovincialis*) ateratzea debekatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko uretan.

Zazpigarrena.— Kirol-arrantzaleek debekatuta dute bosgarren eta seigarren ebaZen-zatietan adierazitako espeziak ateratzea alde itxietan eta Ebazpen honetan C alde gisa sailkatutakoetan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Ahalmena ematen zaio Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari Agindu honetan ezarritakoa betetzeko behar diren neurriak har ditzan.

Bigarrena.— Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekursoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralte Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean; halaber, administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko auzietako salan, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.— Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango diitu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 3a.

Ingurumen, Lurralte Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

o *Ruditapes philippinarum*, *Venerupis aurea* y *Venerupis rhombooides*).

– Chirla (*Venus striatula* y *Chamelea gallina*).

Sexto.— Se prohíbe la extracción de la especie mejillón (*Mytilus edulis* y *Mytilus galloprovincialis*) en las aguas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Séptimo.— Se prohíbe a los pescadores recreativos la extracción de las especies señaladas en el resuelvo quinto y sexto en las zonas cerradas y en las zonas que han recibido la calificación de C en la presente Orden.

DISPOSICIONES FINALES


Primera.— Se faculta al Director de Pesca y Acuicultura para adoptar las medidas que sean necesarias para la ejecución de lo dispuesto en esta Orden.

Segunda.— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Tercera.— La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de septiembre de 2009.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.



Sailkapena - Clasificación